

gozkien eskumenak direla. Lege-proiektua bat dator Autonomia Estatutuan egindako eskumen-banaketa-ekin; ez dio eragiten indarrean dagoen legerian ezarritako eskumen-sistemari edo erakunde komunen eta foru-erakundeen arteko eskumen-banaketa, eta ez du aldatzen sistema edo banaketa hori. Hortaz, tramitazioaren etenaldia amaitutzat ematen da, eta jarrai daiteke Euskadiko liburutegien lege-proiektua tramitatzen.

Erabaki hau Eusko Legebiltzarreko Mahaiari eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hala erabaki dute batzordekiek, eta izenpetu ere, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut.

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5516

199/2006 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, lurzoruen kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruen kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babestea du xede, lurzoruen ezaugarri kimikoetan gizakiaren ekintzen eraginez sortutako eraldaketari aurrea hartuta. Lege honen xede da, halaber, esandako lurralde-eremuan dauden lurzoru kutsatu eta eraldatuei aplikatzekoa den araubide juridikoa ezartzea, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzeko.

Otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 5. artikulua araber, lurzoruaren edukitzaile eta jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen oinarrizko betebeharrak da lurzorua babestea, eta egin behar horretan sartzen da lurzoruen kalitatea ezagutu eta kontrolatzea. Ildo horretan, legeko III. kapituluak lurzoruen kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko tresnak definitzen ditu, eta gerora erregelamenduz garatuko direla aurreikusten du. Edonola ere, tresna horien gutxienezko edukia eta irismena ezartzen ditu legeak.

Hala, lurzoruen kalitatea aztertzeko lehen etapa «miaketazko ikerketa» egitea izango da. Etapa honek,

den a las instituciones comunes. El proyecto de ley se adecua a la distribución de competencias establecida en el Estatuto de Autonomía, sin afectar ni modificar el sistema competencial o la distribución de competencias entre las instituciones comunes y forales establecidos en la legislación en vigor. Por lo tanto, se levanta la suspensión del procedimiento, pudiéndose continuar la tramitación del proyecto de ley de bibliotecas de Euskadi.

Esta decisión se notificará a la Mesa del Parlamento Vasco y a la Diputación Foral de Álava, y se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el del territorio histórico de Álava. Así lo acuerdan los componentes de la comisión, que la suscriben, y de lo cual yo, el secretario, doy fe.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

5516

DECRETO 199/2006, de 10 de octubre, por el que se establece el sistema de acreditación de entidades de investigación y recuperación de la calidad del suelo y se determina el contenido y alcance de las investigaciones de la calidad del suelo a realizar por dichas entidades.

La Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo tiene por objeto la protección del suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, previniendo la alteración de sus características químicas derivada de acciones de origen antrópico. Asimismo, es objeto de dicha ley el establecimiento del régimen jurídico aplicable a los suelos contaminados y alterados existentes en dicho ámbito territorial, en aras de preservar el medio ambiente y la salud de las personas.

De acuerdo con el artículo 5 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, la protección del suelo constituye un deber básico de las personas físicas o jurídicas poseedoras de suelos y de quienes sean sus propietarias, deber que conlleva la obligación de conocer y controlar la calidad del suelo. En este sentido el capítulo III de la ley define los instrumentos técnicos necesarios para conocer y controlar la calidad del suelo, y prevé un desarrollo reglamentario posterior e inmediato, si bien se procede a fijar el contenido y alcance mínimos que dichos instrumentos deben tener.

De este modo, se establece una primera etapa de examen de la calidad del suelo denominada «investigación

lurzorua kutsatu edo eralda dezaketen gai kutsatzaileen kontzentrazioak dauden edo ez egiaztatzea ahalbidertzen du.

Azterketaren bigarren fasea «ikerketa xehatua» da, eta bere helburua pertsonen osasunerako zein ingurumenarako arriskuak baloratzea da, lurzoruak dituen edo izango dituen erabilpenak eta gai kutsatzaileak kontuan izanda.

Otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 36. artikulua araber, lurzoruaren kalitatearen ikerketak egiteko eta berreskurapen-neurriak taxutu eta gauzatzeko, ezinbesteko betekizuna izango da egiaztatpena lortzea. Horretarako, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak egiaztatpena emango die eskatzen duten erakundeei. Legearen 36. artikulua berak ezartzen duenez, erregelamenduz ezarriko dira egiaztatpena lortzeko betekizunak eta prozedura. Erregelamendu horrek legeak berak zehazten dituen alderdiak jaso beharko ditu gutxienez.

Azaldutako aurrekariei jarraituz, dekretu honek lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema arautzen du. Era berean, erakunde horiek egin beharreko ikerketen gutxienezko edukia eta irismena ere ezartzen ditu.

Dekretuak, lehenik eta behin, egiaztatpena eskatzen duten erakunde publiko edo pribatuek gauzatu ahal izango dituzten jarduerak ezartzen ditu. Egiaztatpena eskuratzeko eskaerarekin batera, erakundeek I. eranskinean zehazten diren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia dituela bermatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Horri dagokionez, egiaztaturiko erakundeek beren giza baliabideak zein baliabide teknikoak erabili beharko dituztela xedatzen da, nahiz eta baden hainbat jarduera erakunde independentei kontratatzeko aukerarik; adibidez, indusketa- eta metatze-lanetan oinarritutako berreskurapen-neurriak burutzeko, edota hainbat zerbitzu osagarri emateko.

Lurzoruaren kalitatea ikertzeko analisi kimikoei dagokionez, araudiak xedatzen du egiaztatutako erakundeak berak egin ahal izango dituela, edota berarekin elkarlanean aritzen den laborategi batek. Bi kasuetan, laborategiak UNE-EN ISO/IEC 17025 araua betetzen duela frogatzen duen ziurtagiria izan beharko du.

Dekretuak, bestalde, ingurumen-organoak egiaztatutako erakundeen jardueraren gainean izango dituen eskumenak zehazten ditu, eta baita egiaztatpena emateko prozedura, egiaztatpenaren indarraldia eta iraungitze-data ere.

exploratoria», que posibilita la comprobación de la existencia de concentraciones de sustancias contaminantes que puedan suponer una contaminación o alteración del suelo.

La «investigación detallada» constituye la segunda fase del examen y tiene como finalidad valorar el riesgo para la salud de las personas y el medio ambiente derivado de la presencia de sustancias contaminantes en relación con los usos a que esté o vaya a estar destinado el suelo.

De acuerdo con el artículo 36 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, la acreditación será requisito imprescindible para poder realizar las investigaciones de la calidad del suelo, el diseño y la ejecución de las medidas de recuperación que se contemplan en la Ley para lo cual el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma acreditará a las entidades que lo soliciten. Dispone además el mencionado artículo que reglamentariamente se establecerán los requisitos necesarios y el procedimiento para obtener tal acreditación, que deberá contener, al menos, los extremos que el artículo contempla.

De acuerdo con los antecedentes expuestos el presente Decreto procede a regular el sistema de acreditación de entidades de investigación y recuperación de la calidad del suelo estableciéndose asimismo el contenido y alcance mínimos de las investigaciones de la calidad del suelo a realizar por las citadas entidades.

El Decreto establece en primer lugar, las actuaciones que podrán llevar a cabo aquellas entidades públicas o privadas que soliciten la acreditación, para lo que deberán acompañar a su solicitud la documentación que garantice la suficiencia de los medios técnicos y humanos y la experiencia de la entidad que se detallan en el anexo I de la norma. A este respecto se determina que las entidades acreditadas deberán utilizar sus propios medios técnicos y humanos si bien se exceptúan ciertas actuaciones que podrán ser contratadas a entidades independientes con las que colaboren puntual o permanentemente tales entidades, actuaciones como la ejecución de las medidas de recuperación consistentes en la excavación y deposición controlada o la prestación de determinados servicios auxiliares.

En relación con la realización de los análisis químicos que se lleven a cabo en el transcurso de las investigaciones de la calidad del suelo, la norma señala que podrán ser realizados por la propia entidad acreditada a través de sus medios técnicos y humanos o por un laboratorio con el que colabore. En ambos casos el laboratorio deberá disponer de un certificado otorgado de conformidad con la norma UNE-EN ISO/IEC 17025.

Por otro lado, el Decreto determina las competencias que corresponden al órgano ambiental en relación con el ejercicio de las actuaciones por las entidades acreditadas y regula el procedimiento de otorgamiento de la acreditación, su vigencia y caducidad.

Era berean, egiaztatutako erakundeen erregistroa arautzen da. Erregistro hori publikoa izango da eta ingurumen-organoari atxikita egongo da. Erakunde baikoitzaren daturik esanguratsuenak bilduko ditu, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen eragina jasaten duten lurzoruen edukitzaile eta jabeei fedea ematen duen informazioa eskaintzeko.

Hondakinen araudia betetzeari dagokionez, dekretuak xedatzen du emandako egiaztapenak ez duela erakunde araudi sektorial honetan ezarritako betebeharrak bete behar izatetik salbuesten. Edonola ere, erakundeak lurzorua kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzen dituenean —«in situ», «on site» edo «off site» tratamendu-tekniken bidez—, egiaztapena emateak hondakinak kudeatzeko baimena ere barnebilduko du inplizituki honako hau derrigorrezkoa denean; hau da, «on site» edo «off site» teknika bidezko tratamenduetan. Salbuespenak izango dira instalazio finkoetan egindako berreskurapenak edo indusketa eta metatze kontrolatuetan oinarritutakoak.

I. eranskinak ingurumen-organoari egiaztapena eskatzen dioten erakundeek justifikatu beharreko baldintza orokorrak ezartzen ditu (administratiboak, antolantza teknikoak, giza baliabideetakoak eta baliabide teknikoetakoak). Baldintza horien artean, hurrengoak nabarmentzen dira: erakundeak egiaztapena daukaten jardueretatik eratorritako erantzukizunak estaltzeko erantzukizun-asegurua izatea, eta erakundeak UNE-EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera ikuskaritza-organismo bezala egiaztatuta egotea.

Azkenik, egiaztatutako erakundeek otsailaren 4ko 1/2005 Legeak (lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak) ezarritakoaren arabera egiten dituzten ikerketen gutxienezko edukia eta irismena arautzen ditu II. eranskinak.

Legea betetz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arauzoetarako Batzordearen eta Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen aurretiko txostena jaso ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrituz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenari jarraituz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urriaren 10eko bileran eginiko deliberazioarekin eta emaniko onarpenarekin,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Dekretu honek lurzorua kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatze sistema arautzea du xede, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritakoari jarraituz. Era berean, erakunde horiek lurzorua kalitatearen inguruan egin beharreko ikerketen edukia eta irismena ere arautzen ditu.

Se regula, igualmente, el registro en el que se inscribirán las entidades una vez acreditadas. Dicho registro, que será público y estará adscrito al órgano ambiental, contendrá los datos más relevantes para cada una de las entidades facilitando, de este modo, información fehaciente a los propietarios y poseedores de suelos afectados por la Ley 1/2005, de 4 de febrero.

Señala el Decreto en relación con el cumplimiento de la normativa de residuos, que la acreditación otorgada no exime a la entidad de las obligaciones establecidas en esta normativa sectorial, sin perjuicio de que cuando la entidad ejecute medidas de recuperación de la calidad del suelo, mediante técnicas de tratamiento «in situ», «on site» u «off site», exceptuando aquéllas realizadas en plantas fijas o consistentes en la excavación y deposición controlada, el otorgamiento de la acreditación conllevará implícitamente el otorgamiento de la autorización de gestor de residuos en aquellos casos en lo que la misma es preceptiva, es decir, en los tratamientos mediante técnicas «on site» u «off site».

El anexo I establece los requisitos generales administrativos, de organización y de medios técnicos y humanos cuya disponibilidad deberá ser justificada por las entidades que soliciten la acreditación ante el órgano ambiental. Entre dichos requisitos cabe señalar la obligación de disponer de un seguro de responsabilidad que cubra las responsabilidades derivadas de las actuaciones para las cuales estén acreditadas las entidades y el requisito de estar acreditada la entidad como organismo de inspección según la norma UNE-EN ISO/IEC 17020.

Finalmente, el anexo II regula el alcance y contenido mínimo de las investigaciones de la calidad del suelo que lleven a cabo las entidades acreditadas en el marco de lo dispuesto por la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

En su virtud, previo informe del Consejo Económico y Social Vasco y de la Comisión Ambiental del País Vasco, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Vasco en su sesión celebrada el día 10 de octubre de 2006,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular el sistema de acreditación de entidades de investigación y recuperación de la calidad del suelo, de conformidad con lo que establece la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, determinándose asimismo el contenido y alcance de las investigaciones de la calidad del suelo a realizar por las citadas entidades.

2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

a) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko egiaztatutako erakunde: otsailaren 4ko 1/2005 Legeak eta dekretu honek zehazten dituzten jarduerak egiteko egiaztapena lortu duen erakunde publiko edo pribatua, berezko izaera juridikoa duena.

b) Egiaztapena: dekretu honetan finkatutakoari jarraituz, erakunde bati jarduera bat edo gehiago burutzeko gaitasuna eta ahalmena aitortzen dizkion ebazpena.

c) UNE-EN ISO/IEC 17020 Araua: ikuskaritza gauzatzen duten erakunde-mota ezberdinen funtzionamendurako irizpide orokorrak ezartzen dituen araua.

d) UNE-EN ISO/IEC 17025 Araua: saiakuntza- eta kalibrazio-laboretegiaren gaitasun teknikoari buruzko baldintza orokorrak ezartzen dituen araua.

3. artikulua.– Egiaztatutako erakundeen jarduerak.

1.– Autonomia Erkidegoko erakunde publiko edo pribatuek nahitaez eduki beharko dute egiaztapena hurrengo jarduerak egin ahal izateko:

a) Lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa edota ikerketa xehatua diseinatu eta gauzatzea, beharrezkoa denean analisi kimikoak in situ eginez.

b) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak diseinatzea.

c) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzen direla ikuskatzea.

d) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzea, «in situ», «on site» edo «off site» tratamendu-tekniken bidez. Salbuespenak izango dira instalazio finkoetan egindako berreskurapenak edo indusketa eta metatze kontrolatuetan oinarritutakoak.

e) Berreskuratzeko neurriak hartu eta gero geratutako lurzorua kalitatearen ikerketak diseinatu eta gauzatzea.

f) Lurzoruaren kalitatearen kontrolerako eta jarraipenerako neurriak diseinatu eta gauzatzea.

g) Lurzoruaren kalitatearen adierazpen baten edukia osatzen duten prebentzio edota defentsarako neurriak diseinatu eta ikuskatzea.

2.– Erakundeak aurreko paragrafoan aurreikusitako edozein jarduera burutzeko eskatu ahal izango du egiaztapena. Horretarako, dekretu honetako 10. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko du bere eskaerarekin batera.

Artículo 2.– Definiciones.

A los efectos de este Decreto, se entiende por:

a) Entidad acreditada en investigación y recuperación de la calidad del suelo: entidad con personalidad jurídica propia, de carácter público o privado, que obtiene la acreditación para realizar las actuaciones que determina la Ley 1/2005, de 4 de febrero y el presente Decreto.

b) Acreditación: resolución por la que se declara la aptitud y la capacidad de una entidad para llevar a cabo una o varias actuaciones de acuerdo con lo que se establece en este Decreto.

c) Norma UNE-EN ISO/IEC 17020: norma que establece los criterios generales para el funcionamiento de diferentes tipos de organismos que realizan la inspección.

d) Norma UNE-EN ISO/IEC 17025: norma que establece los requisitos generales relativos a la competencia técnica de los laboratorios de ensayo y calibración.

Artículo 3.– Actuaciones de las entidades acreditadas.

1.– La acreditación será requisito imprescindible para que las entidades públicas o privadas que lo soliciten ante el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, puedan realizar las siguientes actuaciones:

a) Diseño y ejecución de las investigaciones exploratoria y/o detallada de la calidad del suelo, incluyendo, en su caso, la realización de análisis químicos in situ.

b) Diseño de medidas de recuperación de la calidad del suelo.

c) Supervisión de la ejecución de medidas de recuperación de la calidad del suelo.

d) Ejecución de medidas de recuperación de la calidad del suelo, mediante técnicas de tratamiento «in situ», «on site» u «off site», exceptuando aquellas realizadas en plantas fijas o consistentes en la excavación y deposición controlada.

e) Diseño y ejecución de las investigaciones de la calidad del suelo remanente tras la adopción de medidas de recuperación.

f) Diseño y ejecución de medidas de control y seguimiento de la calidad del suelo.

g) Diseño y supervisión de la ejecución de medidas preventivas y/o de defensa cuando éstas formen parte del contenido de una Declaración de Calidad del Suelo.

2.– La entidad podrá solicitar la acreditación para cualquiera de las actuaciones contempladas en el apartado anterior, acompañando su solicitud de la documentación señalada en el artículo 10 del presente Decreto.

3.– Eskaera egiten duten erakundeek dekretu honetako I. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte egiaztapena jaso ahal izateko.

4.– Artikulu honetako lehen paragrafoko d) idatzatian aurreikusitako jardueretarako egiaztapena izan arren, erakundeek gauzatu nahi duten jarduera zehatz bakoitzaren lan-egitasmoa igorri beharko diote ingurumen-organoari. Organo horrek izango du horiek onartzeko eta beharrezkotzat jotzen dituen baldintza guztiak ezartzeko eskumena.

4. artikulua.– Bateriaezintasunak.

Egiaztapena jaso duten erakundeek prozedurak ezarri beharko dituzte beren zerbitzuak eska ditzaketen eta beraien jardueretan eragina izan dezaketen pertsona juridiko edo fisikokoekiko independentzia eta inpartzialtasun osoa dutela ziurtatzeko.

Hori betetzen dela bermatzeko, erakundeak UNE-EN ISO/IEC 17020 Arauan aurreikusitako independentzia, inpartzialtasun eta osotasun irizpideak betetzen dituela justifikatu beharko du, bere jarduerari eragin diezaioketen merkataritza, finantza edo bestelako presioarik ez duela bermatzeko.

5. artikulua.– Hondakinen araudiarekin harremana.

1.– Dekretu honi jarraituz egiaztapena jaso duen erakundeak indarrean den araudi sektorialak hondakinen arloan ezarritako betebeharrak ere bete beharko ditu. Era berean, beharrezkoa denean hondakinak kudeatzeko baimena eskuratu beharko du, eta ingurumen-organoak erabakitzen duen erako eta kopuruko fidantza aurkeztu.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, eta administrazio-prozedurak sinplifikatzeko asmoz, ingurumen-organoak 3. artikuluko lehen paragrafoko d) idatzatian jasotako berreskurapen-neurriak gauzatzeko egiaztapena ematen dionean erakunde bati, ingurumen-organoak emaniko ebazpenak hondakinak kudeatzeko baimena emateari atxikitako baldintza eta betebeharrak eduki ahal izango ditu —indarrean dauden araudian daudenak—, baimen hori beharrezkoa den kasuetan —hau da, «on site» edo «off site» tekniken bidezko tratamenduetan—.

6. artikulua.– Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen edukia eta irismena.

Egiaztatutako erakundeek lurzorua kalitatearen inguruan eginiko ikerketek lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko III. kapituluaren jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Betebehar horien edukia eta irismena dekretu honetako II. eranskinean daude zehaztuta.

3.– El otorgamiento de la acreditación a aquellas entidades que lo soliciten queda supeditado al cumplimiento de los requisitos establecidos en el anexo I de este Decreto.

4.– La acreditación para las actuaciones contempladas en el epígrafe d) del apartado primero de este artículo no exime a las entidades acreditadas de la remisión al órgano ambiental de un plan específico de trabajo para cada una de las actuaciones concretas a desarrollar al objeto de que por dicho órgano se proceda a su aprobación y al establecimiento de cuantas condiciones específicas se consideren oportunas.

Artículo 4.– Incompatibilidades.

Las entidades acreditadas deberán implantar procedimientos para asegurar la total independencia e imparcialidad con respecto a las personas físicas o jurídicas que pudieran requerir sus servicios y pudieran influir en el resultado de sus actuaciones.

A los efectos de garantizar el cumplimiento de lo señalado en el apartado anterior la entidad deberá justificar, a su vez, el cumplimiento de los criterios de independencia, imparcialidad e integridad que se fijan en la norma UNE-EN ISO/IEC 17020 que garanticen la inexistencia de presiones comerciales, financieras o de otra índole que puedan afectar a la actividad de la entidad acreditada.

Artículo 5.– Relación con la normativa de residuos.

1.– La acreditación otorgada a una entidad conforme al presente Decreto no exime a la misma del cumplimiento de las obligaciones que en materia de residuos se establecen en la normativa sectorial vigente, incluyendo, cuando sea exigible, la obtención de la autorización de gestor de residuos y la constitución de una fianza en la forma y cuantía que el órgano ambiental determine.

2.– De conformidad con lo dispuesto en el apartado anterior y en aras a garantizar la simplificación de los procedimientos administrativos, la resolución del órgano ambiental por la que se otorgue la acreditación a una entidad para la ejecución de medidas de recuperación señaladas en el epígrafe d) del apartado primero del artículo tercero, podrá incorporar el conjunto de condiciones y requisitos inherentes al otorgamiento de la autorización de gestor de residuos, regulada en la normativa en vigor, en aquellos supuestos en los que la misma sea preceptiva, esto es, en los tratamientos mediante técnicas «on site» u «off site».

Artículo 6.– Contenido y alcance de las investigaciones de la calidad del suelo.

Las investigaciones de la calidad del suelo que se lleven a cabo por las entidades acreditadas deberán satisfacer los requerimientos que a tal efecto se recogen en el capítulo III de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, y su contenido y alcance responderán a lo que se especifica en el anexo II de este Decreto.

7. artikulua.— Akreditatutako erakundeen baliabideak.

1.– 3. artikuluan araututako jarduerak egiteko egiaztapena daukaten erakundeek beren giza baliabideak eta baliabide teknikoak erabili beharko dituzte, betiere dekretu honetako hirugarren xedapen iragankorrak arrisku-analisiak egiteari buruz azaldutakoa kaltetu gabe.

2.– Dena den, egiaztapena duen erakundeak berarekin era iraunkorrean edota puntualki aritzen den erakunde independente bat kontratatu ahal izango du indusketa eta metatze-lanetan oinarritutako berreskurapen-neurriak gauzatzeko edota zundaketak, laginketak edo jasotze topografikoak bezalako zerbitzu osagarriak emateko.

Era berean, «in situ» analisiak UNE-EN ISO/IEC 17020 edo UNE-EN ISO/IEC 17025 arauen arabera egiaztatutako erakunde independente batek egin ahal izango ditu.

3.– Egiaztapena duen erakundeak eskura izango ditu erabili beharreko baliabide teknikoen ezaugarriak eta kasu bakoitzean egin beharreko lanen irismena zehazten dituzten prozedura idatziak, baliabideak erakundearenak berarenak zein kanpokoak izan.

4.– Egiaztapena duen erakundeak, nahiz eta kanpoko giza baliabideak eta baliabide teknikoak erabili, jaso duen egiaztapenari dagozkion erantzukizunak izango ditu ingurumen-organoaren aurrean.

8. artikulua.— Analisi kimikoen laborategiak.

1.– Lurzoruaren kalitatea ikertzeko egin beharreko analisi kimikoak egiaztapena duen erakundeak berak egin ahal izango ditu, bere baliabide teknikoak eta giza baliabideak erabiliz, edota berarekin puntualki edo era iraunkorrean elkarlanean aritzen den laborategi batek.

2.– Analisi kimikoetako laborategiek —egiaztatutako erakundeetakoak bertakoak nahiz kanpokoak izan— UNE-EN ISO/IEC 17025 Arauari jarraiki emaniko egiaztapen-ziurtagiria izan beharko dute, betiere dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean azaldutakoa kaltetu gabe.

9. artikulua.— Ingurumen-organoaren eskumenak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak hurrengo eskumenak izango ditu:

a) Hala eskatzen duten erakundeei dekretu honetako 3. artikuluekin lotutako jarduerak burutzeko egiaztapena ematea.

b) Egiaztapena jaso duten erakundeak erregistratzea.

c) Egiaztapena jaso duten erakundeen gaineko ikuskaritza, zaintza eta kontrola gauzatzea.

d) Dekretu honetan aurreikusitako egiaztapen-sistemari lotutako zigor-ahalmena gauzatzea.

Artículo 7.— Medios de las entidades acreditadas.

1.– Las entidades acreditadas para el ejercicio de las actuaciones reguladas en el artículo 3 deberán utilizar sus propios medios técnicos y humanos, sin perjuicio de lo señalado en la Disposición Transitoria Tercera de este Decreto sobre la realización del análisis de riesgos.

2.– En todo caso, la entidad acreditada podrá contratar a una entidad independiente con la que colabore puntual o permanentemente para la ejecución de las medidas de recuperación consistentes en la excavación y deposición controlada o para la prestación de servicios auxiliares tales como la realización de sondeos y catas o el levantamiento topográfico.

Asimismo, los análisis «in situ» podrán realizarse por una entidad independiente que deberá estar acreditada conforme a las normas UNE-EN ISO/IEC 17020 o UNE-EN ISO/IEC 17025.

3.– La entidad acreditada dispondrá de procedimientos escritos que detallen las características de los medios técnicos a utilizar y el alcance de las operaciones que en cada caso deban realizarse, independientemente de que los citados medios sean propios o ajenos.

4.– La utilización de medios técnicos y humanos ajenos no exime a la entidad acreditada de las responsabilidades que frente al órgano ambiental le corresponden en virtud de la acreditación concedida.

Artículo 8.— Laboratorios de análisis químicos.

1.– Los análisis químicos que deban realizarse en el transcurso de las investigaciones de la calidad del suelo podrán ser realizados por la propia entidad acreditada utilizando para ello sus propios medios técnicos y humanos, o por un laboratorio con el que colabore puntual o permanentemente.

2.– Los laboratorios de análisis químicos, independientemente de que se trate de un laboratorio propio de la entidad acreditada o ajeno a la misma, deberán disponer de un certificado de acreditación otorgado de conformidad con la norma UNE-EN ISO/IEC 17025 sin perjuicio de lo señalado en la Disposición Transitoria Segunda de este Decreto.

Artículo 9.— Competencias del órgano ambiental.

1.– Corresponde al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco el ejercicio de las siguientes competencias:

a) acreditar a las entidades que lo soliciten para llevar a cabo las actuaciones relacionadas en el artículo 3 del presente Decreto.

b) registrar a las entidades una vez acreditadas.

c) ejercer la inspección, vigilancia y control de las entidades acreditadas.

d) ejercer la potestad sancionadora en relación con el sistema de acreditación establecido por el presente Decreto.

2.– Egiaptapena duten erakundeak ikuskatu, zaindu eta kontrolatzeko lanak ingurumen-organoari atxikitako zerbitzu teknikoek egingo dituzte, edota, erakundeak horrela eskatzen badu, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren (Ihobe, SA) zerbitzu teknikoek. Azken kasu hau izaera teknikoko jardueretan bakarrik eman ahal izango da, eta lanak gauzatzeko baldintzak ingurumen-organoak ezarriko ditu.

3.– Aurreko ataletan zehaztutako eskumenak erraztasun handiagoz gauzatu ahal izateko, egiaptapena duten erakundeek beren instalazio, bulego zein agirietera jotzen utzi beharko diete ingurumen-organoaren ordezkari.

10. artikulua.– Eskaera eta dokumentazioa.

Egiaptapena lortu nahi duten erakundeek ingurumen-organoan aurkeztu beharko dute eskaera, burutu nahi dituzten jarduerak egiteko beharrezko bitarteko eta esperientzia dutela bermatzen duen dokumentazioarekin batera. Egiaptapen-eskaerari honako dokumentuak erantsi beharko zaizkio zehazki:

- a) Erakundea sortzen duen eskritura edo araua.
- b) Erakundearen helbidea.
- c) UNE-EN ISO/IEC 17020 Arauaren arabera, ikuskaritza-erakunde gisa egiaptatua izatearen ziurtagiria, 3. artikuluko lehen paragrafoko jarduerentzat, betiere dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa kaltetu gabe.
- d) Egiaptatu nahi diren lanetan aritzen diren langileen zerrenda, beren mailak, espezialitateak, curriculumak eta zehaztutako arloen frogagiriak. Aurreko ataletan aipaturiko ziurtagiria beharrezkoa den kasuetan, egiaptatu nahi diren lanetan aritzen diren langileak ikuskari direla aitortu behar du ziurtagiri horrek.
- e) Erakundeak bere funtzioak burutzeko dituen instalazioen, ekipoen eta elementu materialen zerrenda.
- f) Indusketa eta metatze-lanetan oinarrituta ez dauden berreskurapen-neurriak erabili nahi dituzten erakunde kasuan [3. artikuluko lehen paragrafoko d) idatz-zatia], aplikatu beharrek teknologiar dagokion proiektua, I.D eranskinean araututako edukiarekin.
- g) Erakunde eskatzaileak egiaptapenaren objektu izango diren jarduerak gauzatzeko kontratatuko dituen baliabide teknikoek eta giza baliabideen zerrenda.
- h) Egiaptapena eskatu den jarduera guztietarako dituen prozedura idatzien kopia, 4. artikuluaen arabera bateraezintasunak saihesteko helburua dutenak barne.

2.– Las labores de inspección, vigilancia y control de las entidades acreditadas podrán llevarse a cabo por los servicios técnicos adscritos al órgano ambiental o por los servicios técnicos de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A., previo requerimiento de aquél. En dicho requerimiento se establecerán las condiciones para el ejercicio de las labores que se encomienden, labores que, en todo caso, comprenderán únicamente actuaciones de índole técnica.

3.– Al objeto de facilitar el ejercicio de las competencias señaladas en los apartados anteriores, las entidades acreditadas deberán permitir el acceso del personal representante del órgano ambiental a las instalaciones, oficinas y documentación relacionadas con la acreditación.

Artículo 10.– Solicitud y documentación.

Las entidades interesadas deberán presentar la solicitud de acreditación ante el órgano ambiental acompañada de la documentación que garantice la suficiencia de los medios y experiencia de la entidad para llevar a cabo las actuaciones para las que se solicita la acreditación. En concreto, la solicitud deberá acompañarse de los documentos que se indican a continuación:

- a) Escritura de constitución o norma que crea la entidad.
- b) Domicilio de sus dependencias.
- c) Certificado de acreditación como organismo de inspección según la norma UNE-EN ISO/IEC 17020 para aquellas actuaciones del artículo 3, apartado primero, que puedan ser acreditadas por esta norma, y ello sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Transitoria segunda de este Decreto.
- d) Relación del personal de plantilla adscrito a las labores objeto de acreditación con indicación de sus categorías y especialidades, currículum vitae y documentación justificativa de los extremos que en él se señalen. En los casos en que sea preceptivo el certificado del apartado anterior, el personal adscrito a las labores objeto de acreditación deberá haber sido reconocido como inspector por dicha certificación.
- e) Relación de las instalaciones, equipos y elementos materiales de que dispone la entidad para realizar sus funciones.
- f) Proyecto relativo a la tecnología a aplicar, con el contenido regulado en el anexo I.D, en el caso de entidades que pretendan ejecutar medidas de recuperación distintas de la excavación y deposición controlada [epígrafe d) del apartado primero del artículo tercero].
- g) Relación de medios técnicos y humanos que la entidad solicitante proyecta contratar para ejecutar las acciones para las que solicita la acreditación.
- h) Copia de los procedimientos escritos de los que se dispone para todas las actuaciones para las que se solicite la acreditación incluyendo aquellos que de conformidad con lo señalado en el artículo cuarto tengan por objeto evitar incurrir en incompatibilidades.

i) Bere jardueretatik eratorritako erantzukizunak bilzen dituen aseguru-polizaren kopia.

j) Espezializatuta dauden beste erakunde batzuekin izenpetutako akordioen egiaztagiriak, betiere beharrezkoa bada.

k) Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimeak, lizentziak, erregistroetako inskripzioak edota bestelako baldintzen egiaztagiriak.

11. artikulua.— Eskaerak konpontzea.

Aurkeztutako eskaerak aurreko artikuluan ezarritako baldintzak beteko ez balitu, erakunde eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio okerra zuzentzeko edota beharrezko dokumentuak aurkezteko, hala egiten ez badu eskaera ez zaiola onartuko adieraziz. Adierazpen hau ingurumen-organismoak egingo du, ebazpen baten bidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua aurreikusitako moduan.

12. artikulua.— Ebaluazioa eta txostena.

1.— Behin eskatutako eskaera eta dokumentazioa jasota, ikuskaritza-bisitak eginda eta beharrezko egiaztapenak burututa, ebazpen-proposamen bat prestatuko da. Bertan, erakundeak aurkeztutako datuak baloratuko dira, eta egiaztapena eman edo ez erabakiko. Ematekotan, bestalde, egiaztapena egikaritzeko baldintzak ere finkatuko dira. Egiaztapena ez ematekotan, ukapena oinarritu duten arrazoi teknikoak edota dena dela-koak ezagutaraziko dira.

2.— Ebazpen-proposamena eman baino lehen, 20 eguneko epean entzunaldia egingo zaio egiaztapena eskatu duen erakundeari.

13. artikulua.— Egiaztapena ematea, indarraldia eta iraungitze-data.

1.— Espedientean azaltzen diren aurrekariak, ebazpen-proposamena eta entzunaldian aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ingurumen-organismoak egiaztapena eman edo ukatzen duenean amaituko da prozedura, betiere kasu bakoitzean indarrean den legeriak eskazakeen beste edozein baimen edo lizentzia kaltetu gabe.

2.— Otsailaren 4ko 1/2005 Legeari eta dekretu honi jarraiki, erakundeak zein jarduera burutu ditzakeen zehaztuko du ebazpenak, eta baita egiaztapena indarrean dagoen epean jarduera horiek garatzeko baldintzak eta betebeharrak ere.

3.— Egiaztapen-eskaera aurkezten denetik hiru hilabeteko epea egongo da prozedura ebazteko. Adierazitako epean ebazpenik ematen ez bada, egiaztapena eman egin dela ulertuko da, eta erakunde eskatzailea Egiaztatutako Erakundearen Erregistroan inskribatuko da. Ka-

i) Copia de la póliza de seguros para cubrir las responsabilidades derivadas de su actuación.

j) Documentación acreditativa, si procede, de los acuerdos que haya suscrito con otras entidades especializadas.

k) Documentación acreditativa de que se dispone de las autorizaciones, licencias, inscripción en Registros y otros requisitos que sean exigibles para el ejercicio de la actividad.

Artículo 11.— Subsanción de solicitudes.

Si se advirtiera que la solicitud presentada no reúne los requisitos establecidos en el artículo anterior, se requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de 10 días, subsane la falta o aporte los documentos preceptivos, indicándole que de no hacerlo, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que se dictará al efecto por el órgano ambiental, en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 12.— Evaluación e informe.

1.— Recibida la solicitud y la documentación exigida y una vez efectuadas las visitas de inspección y realizadas las comprobaciones necesarias, se emitirá una propuesta de resolución que incluya una valoración de los datos aportados por la entidad y el otorgamiento de la acreditación y sus condiciones o, por el contrario, su denegación. En este último caso, se harán constar las razones de orden técnico y de cualquier otra naturaleza que hayan motivado la propuesta desfavorable.

2.— La propuesta de resolución se someterá a un trámite de audiencia a la entidad que haya solicitado la acreditación durante un plazo de 20 días.

Artículo 13.— Otorgamiento, vigencia y caducidad de la acreditación.

1.— Vistos los antecedentes que figuran en el expediente, la propuesta de resolución y las alegaciones presentadas en su caso en el trámite de audiencia, el procedimiento concluirá mediante resolución del órgano ambiental concediendo o denegando la acreditación, sin perjuicio de cualquier otra autorización o licencia que sea exigible en cada caso por la legislación vigente.

2.— La resolución determinará las actuaciones para las que la entidad se encuentra habilitada de conformidad con la Ley 1/2005, de 4 de febrero y con el presente Decreto, así como los requisitos y condiciones para el desarrollo de dichas actuaciones durante el periodo de vigencia de la acreditación.

3.— El plazo para la resolución del procedimiento será de tres meses desde que se presentó la solicitud de acreditación. La falta de resolución en el plazo indicado conllevará el otorgamiento de la acreditación, procediéndose a la inscripción de la entidad solicitante en

su honetan, aipatutakoa egiaztatzen duen ziurtagiri bat luzatzea eskatu ahal izango du erakundeak.

4.– Egiatzapena bost urteko eperako emango da, eta iraupen bereko segidako bi luzapen jaso ahal izango ditu esanbidezko ebazpen baten bidez, betiere erakunde interesdunak gutxienez hilabete lehenago egiten badu aurretiko eskaera. Egiatzapena eman zenetik erakundeak aldatu diren alderdiak jasotzen dituen dokumentazioa erantsi beharko zaio eskaera horri.

5.– Erakundearen jardueretatik eratorritako erantzukizunak barnean hartzeko izenpetu beharreko aseguru-polizaren eraginkortasuna ziurtatzeko, egiatzapena luzatzen duen ebazpenak eguneratu egingo du poliza horren estaldura, prezioen indize orokorrak izaniko aldaketa kontuan hartuz. Oinarrizko indize bezala, aseguru izenpetu zen datan indarrean zegoena hartuko da.

6.– Egiatzapena eman zenetik hamabost urtera iraungiko da, baina erakunde eskatzaileak beste egiatzapen bat eskatzeko aukera izango du, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenarekin, dekretu honetan araututako prozedura jarraituz.

14. artikulua.– Egiatzatutako Erakundearen Erregistroa.

1.– Dekretu honi jarraiki ingurumen-organoaren egiatzapena jaso duten erakundeak inskribatzeko erregistroa sortuko da.

2.– Erregistroa publikoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari atxikita egongo da eta egiatzapena jaso duen erakunde bakoitzaren hurrengo informazioa bilduko du:

- a) Erakundea identifikatzeko datuak.
- b) Egiatzapenaren irismena: erakundeak zein jarduerarako duen egiatzapena.
- c) Egiatzapenaren iraunaldia.
- d) Zenbat pertsonak osatzen duten lantaldea, eta beren titulazioa.
- e) Egiatzatutako jarduerak garatzeko bitarteko tekniko esanguratsuen zerrenda.
- f) UNE-EN ISO/IEC 17020 Arauari jarraiki, organo ikuskatzaile gisa egiaztatzen duen ziurtagiria, dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- g) Erakundeak ingurumen-arloan dituen ziurtagiri, egiatzapen edo aitorten ofizialak.
- h) Ingurumen-organoak zehazten duen beste edozein informazio.

el Registro de Entidades Acreditadas. En este supuesto la entidad podrá solicitar la expedición de un certificado acreditativo de tal extremo.

4.– La acreditación se otorgará por un período de cinco años y podrá ser objeto de dos prórrogas sucesivas de igual duración mediante resolución expresa dictada al efecto y previa solicitud de la entidad interesada, con al menos un mes de antelación, que se acompañará de la documentación que identifique aquellos aspectos de la entidad que se hayan modificado desde que se otorgó la acreditación.

5.– A fin de asegurar la efectividad de la póliza de seguros que deberá suscribirse por la entidad para cubrir las responsabilidades derivadas de su actuación, la resolución por la que se proceda a la prórroga de la acreditación actualizará la cobertura de dicha póliza de acuerdo con la variación del índice general de precios, tomando como índice base el vigente en la fecha de la suscripción del seguro.

6.– Transcurridos quince años desde la acreditación inicial ésta caducará pudiendo la entidad solicitar, con una antelación de al menos tres meses, nueva acreditación de acuerdo con el procedimiento regulado en el presente Decreto.

Artículo 14.– Registro de entidades acreditadas.

1.– Se crea el Registro de entidades acreditadas en el que se inscribirán las entidades a las que el órgano ambiental otorgue la acreditación en virtud del presente Decreto.

2.– El Registro, que será público y estará adscrito al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, contendrá la siguiente información para cada una de las entidades acreditadas:

- a) Datos identificativos de la entidad.
- b) Alcance de la acreditación: actuaciones para las que la entidad está acreditada.
- c) Vigencia de la acreditación.
- d) Número de personas integrantes del equipo y titulación.
- e) Relación de medios técnicos relevantes para el desarrollo de las actuaciones objeto de acreditación.
- f) Certificado de acreditación como organismo de inspección según la norma UNE-EN ISO/IEC 17020, sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Transitoria segunda de este Decreto.
- g) Certificaciones de la entidad y otras acreditaciones o reconocimientos oficiales en materia medioambiental.
- h) Cualquier otra información que se determine por parte del órgano ambiental.

15. artikulua.— Informazioa igortzea.

1.— Egiaztatutako erakundeek hurrengo informazioa igorri beharko diote ingurumen-organoari urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen:

a) Jasotako egiaztapenaren arloan egindako jarduerak biltzen dituen txostena.

b) Hurrengo arloetan gauzatutako jarduerak biltzen dituen memoria zehatza: langileen heziketa, kudeaketaren hobekuntza, antolakuntza eta kanpo-jarduerak. Jardueren eraginkortasuna hobetzeko aldaketa-iradokizunak ere jaso beharko ditu.

2.— Era berean, egiaztatutako erakundeek egiaztapen-prozesuan aurkeztu zuten erantzukizun zibileko aseguruia indarrean dutela justifikatu beharko dute, iraungitze-dataren araberrako maiztasunarekin.

3.— Dena den, egiaztatutako erakundeek berehala eta era frogagarrian ezagutarazi beharko diote ingurumen-organoari I. eranskinean ezarritako betebeharrak betetzearen inguruko edozein aldaketa. Ostean, ingurumen-organoak erabakiko du aldaketek egiaztatutako jarduerak egiten jarraitzeko ezintasuna eragiten duten edo ez —hilabeteke epea izango du erabakia ezagutarazteko—.

16. artikulua.— Erreklamazioak.

